

VENEZUELA. Oposizioko taldeek lanuzteak utzi eta grebako bigarren fasearekin hasteko garaia dela iragarri dute

Chavezi kargua uzteko eskatzeko bildutako sinadurek ez dutela baliorik esan du Gobernuak

Agentziak | CARACAS

Konstituzioa aldatu eta hauteskundeak aurreratzeko eskaerak baztertu egin ditu Hugo Chavez presidentearen gobernuak. Oposizioko buruek lau milioi sinadura inguru bildu zituzten igandean, Konstituzioa aldatu ahal izateko. Baina, Jose Vicente Rangel presidenteordearen arabera, Gobernuak erakunde batek egiaztatu behar ditu sinadurak, baliagarriak izan daitezkeen. Presidenteordearen esanetan, sinadurek herritarren iritzia jakin ahal izateko balio duten arren, ez dute bestelako erabilgaririk.

Herenegun, bestalde, Gobernuak krisiarekin amaitu ahal izateko erreferenduma egitearen alde egin zuen. Erreferendumean Chavezek 1998ko hauteskundeetan baino aldeko boz gutxiago jasotzen baditu, kargua utzi beharko luke. Hori izan zen Jimmy Carter AEBetako presidente ohiak, Cesar Gaviria Amerikar Estatuaren Erakundeko (OEA) idazkari nagusiak zuzentzen duen elkarrizketa mahaian egindako proposamenetako bat. Bestea, oposizioak eskatzen duen erreforma konstituzionala izango litzateke. Azken hori onartuz gero, Venezuelako presidente kargua sei urtekoa izan beharrean, laukoa izango litzateke. Horrez gain, hauteskundeak datorren urtera aurreratuko lirateke eta Hugo Chavez presidenteak kargua utzi beharko luke.

Oposizioa haserre

Gaur jakinaraziko du oposizioak negoziazio mahaia utziko duen ala ez. Gobernuak Konstituzioa erreformatzeko eskaera ukatu ostean, Manuel Cova Chavezen aurkako taldeetako ordezkarietako batek euren jarrera kritikatu eta oposizioak elkarrizketa mahaia uzteko aukera aztertuko duela esan zuen. Jarrera horrek krisiari irtenbide bateratua emateko aukera guztiak baztertzen dituela salatu zuen Covak.

1992ko otsailaren 4an Carlos Andres Perez presidentearen aurka izandako altxamendua 11. urteurrena ospatu zuten Chavezen jarraitzaileek atzo. Presidentea bertan izan ez bazen ere, Gobernuak hainbat ordezkari azaldu ziren ospakizunetan. Rangel presidenteordearen esanetan, hura Gobernu «ustel» baten aurkako eraso izan zen.



GREGORIO MARRERO / AP

MANIFESTAZIOAK. Abenduaren 2an hasi zen Hugo Chavezen aurkako taldeek antolatutako lanuztea. Bi hilabete horietan hainbat aldiz atera dira kalera Gobernuaren aldekoak, egungo presidentearen alde egin eta greba orokorrari aurre egiteko.

«Erasotzeko unea iritsi da»

PETROLIOAREN KRISIA. Hugo Chavez presidenteak defendatzeari utzi eta oposizioari aurre egiteko garaia iritsi dela esan du otsailaren 4ko iraultzaren 11. urteurrenean

Elena Uribe | CARACAS

Duela egun batzuk, presidentearen kargu-uztea eskatzeko 4 milioi sinadura bildu zituela iragarri zuen oposizioak, eta Venezuelako biztanleen %47 haren alde bozkatzeko prest zeudela zioen inkesta batek —1998an bozen %58 eskuratu zituen—. Haren ondoan, Salas Roomer, bozen %19ekin; Julio Borges, %12ekin; eta Enrique Mendoza, %11ekin. «Amaitu da konspiratzaile, kolpista, manipulatzaile eta iruzurgileen denbora. Orain, aurtan, erasora joko dugu. Aurtan ez gara defendatuko; eraso egingo diogu. Aurtan eurak defendatuko dira», zioen, aldi berean, Hugo Chavez presidenteak *Alo presidente* programan.

Otsailaren 2an, oposizioak grebako bigarren fasearen hasiera iragarri zuen. Bigarren fasean, petrolioaren inguruko borrokan jarraitu eta industria eta merkataritza alorrak apurka abian jartzea izango da helburu nagusia. Biharko merkataritza zentro handien eta frankizien irekiera iragarri dute.

Analista askoren ustetan, hori guztia oposizioak bere estrategia aldatzearen ondorio

da; beste batzuen ustez, berriz, krisiari aurre egin diote, ez besterik, merkataritza, gerraio, hezkuntza eta administrazio publiko sektoreetan lanuzteak izan duen porrota ikusi ostean ezinezkoa bilakatu baita greban aurrera jarraitzea.

Nazioarteak ere eragina izan du jarrera aldaketan. Iraken aurkako gerra hain gertu ikusirik, AEBak aukeratu ezinik dabilta: edo Chavez kargutik kendu, edo, petrolio eskuratzen jarraitu ahal izateko, kontuan hartu presidentek nolako garrantzia duen Venezuelaren egonkortasun politiko eta soziala zaintzeko. Beste batzuek adierazia dute Venezuelaren konstituzionaltasunaren aldeko jarrera, eta hori Chavezen aldeko jarreratzat hartzen da.

Herenegun erantzun zion ofizialki Venezuelako Gobernuak Jimmy Carter AEBetako presidente ohiaren proposamenari. Komunikatuak, hauteskundeetarako proposamenarekin bat ez zetorrela adierazteaz gain, zera zioen: «Gobernuaren eta haren alde dauden alderdi politiko eta gizarte erakundeetako ordezkariaren ustetan, presidente ohiak aurkeztutako egitasmo-ko lehen puntua ez da elkarriz-

keta mahaian aztertze modukoa».

Horrez gain, Chavezek Herrialde Lagunen Elkartearen inguruan egindako adierazpenak ere kontuan hartu behar dira: «Haiek hitz egin dezakete, proposamenak aurkez ditzakete, iritzia eman... baina erabakiak har ditzaketen bakarrak herritarrak dira».

Oso jarrera kontrakoak dituzte alde bietan. Oposizioa petrolioaren afera eta herritarren urduritasuna mantentzera behartua sentitzen da; Gobernuak ez dago prest Konstituzioa ez den beste biderik jorratzeko. Badirudi Elkarrizketa Mahaia eta Herrialde Lagunen lana azalekoa izango dela, biak ados jartzen ez diren bitartean.

«Zer gertatzen da Venezuelan?»

Horixe galdetzen dute han bizi ez diren askok, harriturik. Nola egon daiteke *bizirik* Gobernuak, petrolio kanpotik ekartzera behartu duen bi hilabeteko greba eta istiluen ostean?

Petrolio esportatzen duten herrialdeen artean bosgarrena da Venezuela. Ali Rodriguez PDVSA enpresako zuzendariaren presidentetza garaian, Lurralde Petrolio-

Esportatzaileen Erakundea pizteaz gain, upel bakoitzaren prezioa igo egin zen. Horrek irabazi handiak eman zizkion Gobernuari, eta horiek behe mailako herritarren bizi-kalitatea hobetzeko erabili ziren —biztanleen %70 dira—.

Haurren hiltze tasak jaitsi egin ziren. Behe mailako herritarrentzako 150.000 etxe eraiki ziren, eta 5.000 mila nekazarik lurra lortu zituzten.

Politika horrek arrakasta handia izan du herri mailan, baina ez, ordea, bestelako taldeen artean, erdi mailako eta maila altuko herritarren artean, alegia —biztanleen %30 dira—.

Herritarren arteko desberdintasunek eztabaidak sortu dituzte greba aztertze garaian ere. Batzuek, gutxiengoak, komunikabide eta enpresen jabe direnek, Chavezengandik ihes egin eta egoera ekonomikoaren jabe egiteko bidea greban ikusten dute. Gehiengoak, aldiz, protestek orain arte lortutakoa atzera botako dutela uste dute. Azken horien iritzia argi gertatzen da Caracasko gasolina zerbitzugune batean idatzitakoa irakurri gero: «Petrolio saboteatuko dute, baina inoiz ez gure esperantza».